

FUTBOLA

Heynckes: «Taldeak bete-betea ari behar du ondo jokatzeko»

Athleticeko entrenatzaileak ez du hamaikakoan aldaketak sartzeko asmorik

Jupp Heynckesen esanetan, «Athleticek bete-betea ari behar du ondo jokatu ahal izateko». Zuri-gorrien entrenatzailearen ustez jokalaria ez dira makinak eta bete-betea ari behar horrek, futbolariak duten kalitatearekin du zer ikusia. Alemaniarrak esan zuenez, «talde handietan erritmoa jaisteak ez du horrenbesteko garrantzirik, jokalarien kalitateak ordezkatzeko baitu jaitsiera hori».

RAMON BASALDUA / BILBO

Athletic ez zen oso fin aritu, iragan igandean Atletico de Madriden kontra jokatu zuen partiduan bigarren zatian. Zuri-gorriek uko egin zioten erasora jokatzeari, Valenciaren ate aurrean bildu ziren bitartean. Heynckesek atzo Lezaman esan zuenez, berak ez zuen emaitza defenditzeko agindurik eman. «Nik ez dut beldurra ezagutzen», gaineratu zuen zuri-gorrien entrenatzaile alemaniarra.



Beldurra zer den ez duela ezagutzen adierazi zuen atzo Heynckesek. SIMAL

Athletic taldeko entrenatzaileak argi eta garbi esan zuen atzo bere taldeak bete-betea ari behar duela, ondo jokatu ahal izateko. «Jokalaria topera aritzen direnean taldeak ondo jokatzen du. Hala ere, ez dira makinak eta zeozerk ondo funtzionatzeko ez badu, erabakiren bat hartu behar dut egoera horri aurre egiteko. Horrek jokalaria bakoitzaren kalitatearekin du zerikusia. Talde handietan bete-betea aritzea ez da ezinbestekoa, erritmoa jaisten denean jokalarien kalitateak ordezkatzeko baitu jaitsiera hori. Egun batzuetan, zuok kazetariok ere, beste egun batzuetan baino zailtasun gehiago izaten dituzue artikuluak idazteko. Futbolearen gauza bera gertatzen da», esan zuen atzo Heynckesek.

tatearekin du zerikusia. Talde handietan bete-betea aritzea ez da ezinbestekoa, erritmoa jaisten denean jokalarien kalitateak ordezkatzeko baitu jaitsiera hori. Egun batzuetan, zuok kazetariok ere, beste egun batzuetan baino zailtasun gehiago izaten dituzue artikuluak idazteko. Futbolearen gauza bera gertatzen da», esan zuen atzo Heynckesek.

✓ Zaragozaren kontrako partiduan Atletico de Madriden aurka aritutako gizon berberak zelairatuko ditu Jupp Heynckes entrenatzaile alemaniarra.

IGANDEAN ZURI-GORRIK SAN MAMESEN

Elastiko zuri-gorriarekin jokatu du igandean Athleticek Zaragozaren aurka San Mamesen. Erdi bromatan izan bazen ere, berriz ere Athleticen betiko koloreekin jokatzeko poztu egiten duela adierazi zuen atzo Heynckesek.

Zaragoza taldeari dagokionez, zuri-gorrien entrenatzaile alemaniarra ez zuen ezer esan nahi izan. «Batzuetan hobe da aurkari buruz ezer ez esatea». Beste alde batetik, iragan igandean Manzanaresekin jokatu zuten gizonak dira Zaragozaren kontra jokatzeko aukera handienak dutenak, atzo entrenatzaileak esandakoaren arabera.



Dennis Bergkamp.

Bergkampen truke 1.500 milioi pezeta eskaini dizkio Ajaxi Juventusek

ERROMA

Torinoko Juventus taldeak 1.500 milioi pezeta eskaini dizkio Amsterdameko Ajaxi, Dennis Bergkamp aurrelari holandarraren truke. Gian Piero Boniperti, Juventuseko administratzaile nagusia, Ajaxeko zuzendari batekin eta Bergkampen ordezkariarekin bildu zen ostiraletan Torinon, eta isilean gorde nahi izan duten negoziaketan lau urterako kontratua eskaini zion Juventusek aurrelariari, urteko 250 milioi pezetako kontratuarekin, zergarik gabe. Torinoko klubeko ordezkariak argi utzi zuen ez daudela Bergkamp fitxatzeko 'enkantean' sartzeko prest.

Toshackek aldaketak egingo ditu Teneriferen kontrako partiduan

PELLO AIESTARAN / DONOSTIA

John Benjamin Toshackek aldaketak egingo ditu igandean, Realak Teneriferen aurka jokatu duen partiduan. Hori da behintzat, txuri-urdinek atzo goizean Zubietan egindako entrenamenduan ikus ahal izan zena. Donostiarrek zenbait ariketa egin zituzten, eta ondoren ohizko partidutxoak ere jokatu zituzten.

Iñaki Alaba eta Bittor Alkiza Heliodoro Rodriguez zelaian titular izan daitezkeen jokalariekin batera aritu ziren. Beraz, eta oraindik ezer esaterik ez badago ere, hasieratik zelairatuko dira defentsa eta erdilaria. Hamaikakotik kanpo gera daitezke berriz, Guruzeta eta Luis Perez jokalaria. Eibartarrak ez zuen batere partidu onik egin Real Madriden kontra, eta Toshackek neurketaren ondoren berarekin hitz egin zuela ere adierazi zuen. Ez dirudi entrenatzailea batere gustura dagoenik Guruzetak egindako lanarekin.



Iñaki Alaba.

J.C. RUIZ

Luis Perezi dagokionez, titular modura aritzeko aukera handirik ez du. Realak aurrelari bakarrekin jokatu du ziurrenik Tenerifen, positiboren bat lortzea izango baita helburua, eta noski,

postu hori Meho Kodrok beteko du zalantzarik gabe. Gauzak horrela, Bittor Alkiza arituko litzaiteke, erdilari moduan. Gainera, egindako jokalariei dagokionez, Real Madriden kontra aritutako berberak izango dira Jorge Valdano-ren mutilen kontra.

Orain arte azaldutako aldaketen arrazoia zein den ez dago hain garbi. Batetik, Toshack haserre samar dago joan zen igandeko partidua dela eta. Tenerifek egiten duen joko motak ere zer ikusirik izango du ordea. Osasunaren aurkako partiduaren ostean hainbat istilu izan dira, 'txitxarreroren' modu txarrak direla eta. Realak kontu handia izan behar du horrelakoekin.

Donostiarrek Zubietan entrenatuko dute berriro ere gaur goizean. Hasiera batean, saioa Atoxtan egin behar zuten, baina azken orduan Toshackek Zubietan entrenatzea erabaki du. Reala bihar abiatuko da Tenerife alde, eta bertan egingo du asteko azken entrenamendua.



SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandean, urtarriak 17, 19.00etan
Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - REAL ZARAGOZA TXARTEL SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUMean

Ostiralean: 17.30etatik 20.00etara

Larunbatean: 10.30etik 13.30era

eta 17.30etik 20.00etara

EZAUGARRIA: "R" TXARTELERIA

1993 URTEKO TXARTELAK

Urteko Txartelak oraindik berriztatu ez dituzten Bazkide Jn./And.ek SAN MAMES STADIUMeko TXARTELDEGIAN izango dituzte eskura, ondoren azaltzen diren egun eta orduetan, ALDEZ AURRETIK 1992ko TXARTELA AURKEZTU GERO:

13, 14, 15, eta 16an, 10.30etik 13.30era
eta 17.00etatik 20.00etara

Txartel hauek beharrezkoak izango dira ATHLETIC CLUB - REAL ZARAGOZA partidua ikusi ahal izateko.

LINEA ATHLETIC CLUB

☎ 903 - 35.11.25 ☎

TARIFA: Egunkaria: 60 Pzta/min Gauekoa: 42 Pzta/min

LANCIA BILASA rekin dabil *Athletic*

Autonomia, 53 Tf. 427 58 20 BILBO Alameda Rekalde, 48 Tf. 410 12 55